

Balearen etorkizunaz, baikorrago

Ez dakigu 1901eko Maiatzaren 14az geroztik balerik azaldu ote den Orioko kostaldean, guk ez dugu ikusi bederen. Egia esan, oso leku gutxitan ikus daitezke argazkian dugun ale eder horren familiako kide-rik. Edonola ere, baleen familia hazi egin dela diote azken ikerketek. Balearen Ikerketarako



Azken urteotako datuak aztertu eta gero balearen populazioa % 10 handiagotu dela baieztatu omen daiteke.

Nazioarteko Erakundeak plazaratu berri duen txostenak dioenez, azken urteotako datuak aztertu eta gero balearen populazioa % 10 handiagotu dela baieztatu omen daiteke. Zehazki, hamar bale-talde handitan sumatu da joera hori. Bale urdinari dago-

kionez, hazkundera txikiagoa izan bada ere (% 5, hain zuzen), bai- kor azaldu dira ikerla- riak, munduan 1.000 ale baino ez dagoelako.

Balearen Ikerketarako Nazioarteko Erakunde- ak 1986an balearen ehi- zarako ezarri zen atze- rapenaren ondorioztat jo dute bale-populazioa handiagotu izana. Berri pozgarria bada ere, ba- leak erabat desagertze- ko duten arriskuaz ohartzea beharrezkoa dela diote. izan ere, Norvegia eta Japoniako arrantzaleek ez baitute amore eman oraindik eta atzetik dituzte.

Elefanteak salgai

Merkealdietako sasoi iritsi ez bada ere, Zimbabweco Hwange Parke Naturaleko arduradun- nek merke eskaini di- tuzte irudiko elefante- ak. Salneurriari buruz ez dute hitz egin nahi izan, baina salerosketa hil ala bizikoa dela azpi- marratu dute. Zimbab- weco Parke Natural horretan, izan ere, ele- fante-populazioa % 5 handiagotu da azken bost urte hauetan, gaur egun 30.000 elefante bizi delarik bertan. Par- keko arduradunek dio- tenez, egoera jasanezi- na da jadanik. Lehorte- ak baliabiderik gabe utzi du Afrika osoa eta, jaki- na, Hwange ez da sal- buespena izan. Elefan- teak neurrigabe pilatze-



Merkealdietako sasoi iritsi ez bada ere, Zimbabweco Hwange Parke Naturaleko arduradunek merke eskaini dituzte irudiko elefanteak.


ak Parkean bizi diren gainerako animalien he- rriotza sorraraziko duela uste dute eta jadanik errinozero eta antilope gutxiago dagoela baieztatu ahal izan dute. Kontrolpeko ehiza aipa- tu izan da irtenbidetzat. Aukera horrek, ordea, ez du inoiz funtzionatu izan Afrikan, elefanteen legez kanpoko trafikoak etekin handiak ematen dituelako eta tentaldia- ren aurrean errazegia delako amore ematea. Historian bada horri buruzko pasarte negar- garri asko. Irtenbidea 5.000 elefan- te Hwange parke- tik atera eta leku segurue- tara eramatea da. Zere- gin erraza izango denik, ordea, ez du inork uste. Azken urteotako lehorte bortitzak Hwange parkeko hesiak gainditu egin ditu eta inguruko herrialdeetan ere bada- kite zer den goseak eta egarriak animaliak hil dituela ikustea. Oro har, Afrikan elefanteak hartuko dituen parkerik ez dagoela onartu behar den premisa da. Salgai jartzea omen da bide bakarra. Eskaintza

horretaz baliatu daitezke- enak asko dira: mende- baldeko herrialdeak, zoologikoak eta abar. Parkeko arduradunek diotenez, erabaki hori hartu aurretik makina bat aldiz eztabaidatu dute elefanteen etorki- zuna. Parkean segituz gero, goseaz akabatuko dira elefanteak edo gai- nerakoan, parkeko bes- te animaliak hil egingo ditu.

Zikinkerriaren ondorioz gaixotasuna

Aire-poluzioaren arazoa ez da azken hamarkadatar mugatzen den auzia. Jadanik Erdi Aro- an airearen poluzioa nahikoa kaltegarria bai- tzen Bradford Unibers- tsitateko Charlotte Ro-





berts eta Mary Lewis arkeologoek frogatu ahal izan dutenez. Horretarako Erdi Aroko York eskualdeko hainbat herrixkatakako kanposantuetan lurperaturik zeuden 2.000 gorpu baino gehiago aztertu dituzte eta eskualde horretako industrietan sortu zuten poluzioaren eraginez populazioaren % 60k sinusitisa izan zuela ondorioztatu dute ikerlariek.

Lanbidearen eta gaixotasunaren arteko erlazioa ere frogatu nahi izan dute eta horretarako industrieguneak eta nekazalgunek ikertu dituzte. Bi gunetako biztanleen portzentaia altu batek sinusitisa izan bazuen ere, diferentziak nabarmenak dira gunebatetik bestera. Esaterako, industriegunean lurperaturikoetatik % 58k sinusitisa izan zuen. Ikerlarien ustez, XIII. mendean eraiki ziren karobiak bereziki kaltegarriak ziren, ke eta sulfuro(IV) oxido ugari isurtzen baitzuten atmosferara eta hori li-

tzateke portzentaia altu horren zergatia. Bestalde, nekazalguneeetako herritarrek ez omen zuten industrieguneetako poluzioa jasan, baina % 40k izan omen zuen sinusitisa. Portzentaia horren zergatia azaltzeko unean, etxeetan erabiltzen zen ikatza jo dute erruduntzat ikerlariek. Ikerketak plazaratzen duen beste datu bat, gizonezkoen kopurua emakumezkoena baino handiagoa delada. Bi datu horiek, lanbidearen eta gaixotasunaren arteko lotura frogatutzat ematera eraman ditu ikerlariek. Amaitzeko esan, hirigune zein nekazalguneeetan ingurugiroaren ondorioek osasunean duten eragina aztertzekegin den lehen ikerketa arkeologikoa izan dela.

Indarrak eta adarrak orekatuz

Animalia askok adarrak eta garezurra erabiltzen dituzte buruz buruko borrokatan eraso egiteko. Chicagoko Unibertsita-

teko biologo-talde batek frogatu duenez, ahuntz-aziendako animaliek giza garezurra aise zatituko lukeen indarra jasaten dute borrokatan ari direlarik. Biologoek esanetan, adarrak arma gisa erabiltzen dituzten animaliek garezurrean motelgailu-sistema berezia dute eta horri esker jasan ditzakete arestian

berriz, konprimituarazten du. Motelgailu-mekanismo horri esker lortzen dute animalia horiek borrokatan jasaten den indarrak burua bere lekutik ez banatzea. Ikerketaren behin-behineko emaitzak plazaratu badituzte ere, aztertzen dihardute biologoek. Izan ere, hezur-plakak zerk mugiarazten dituen ez da-



aipatutako kolpe-indarrak. Hipotesi hori baieztatzea izan da, hain zuzen, taldeko biologoen zeregina azken hilabeteotan.

Ikerketa egiteko hildako ahuntzen garezurrez baliatu ziren biologoak. Garezurra osatzen duten hezur-plakak jasan dezaketen indarra neurtzeko, tentsiomentroak ipini zizkieten eta animalien borrokatan gertatzen diren kolpeak berun-pisuen bidez simulatu zituzten. Biologoek baieztatu dutenez, kolpeak indar hedagarria sortzen du adarren aurrekaldean eta garezurraren atzekaldea

Biologoek esanetan, adarrak arma gisa erabiltzen dituzten animaliek garezurrean motelgailu-sistema berezia dute.

go oso argi. Biologoek ustez, ahuntz-aziendako animalien adarrek zigzag itxura izateak balukerik zerikusirik.



Aire-poluzioaren arazoa ez da azken hamarkadatar mugatzen den auzia. Jadanik Erdi Aroan airearen poluzioa nahikoa kaltegarria baitzen.

